

Estella-Lizarra, marzo de 2024

**Estimado abonado/a:**

Nos ponemos en contacto para comunicarle la consolidación del modelo de recogida de **cinco contenedores** en la totalidad de la Mancomunidad de Montejurra.

Las principales novedades de este cambio son:

- Implantación del contenedor gris, denominado RESTO, en el que se depositan los residuos que no se han separado específicamente en otros contenedores.
- El contenedor amarillo será únicamente destinado a ENVASES de plástico, brik y latas.
- Tapas de apertura limitada en las fracciones de ORGÁNICA, ENVASES y PAPEL-CARTÓN.

Es de vital importancia que en los contenedores de recogida selectiva (materia orgánica, envases ligeros, papel-cartón y vidrio) se depositen únicamente los residuos solicitados. Así mismo, se deben depositar los residuos especiales (voluminosos, pilas, aparatos eléctricos, lámparas, tóneres, etc), en los puntos limpios, en Traperos de Emaús, etc. **Todo lo que no se haya separado específicamente debe depositarse en el contenedor de RESTO, el de color gris.** Si la separación es correcta, en el contenedor gris únicamente hay que depositar: pañales, compresas, cerámica, barreduras, flejes, cuerdas, arena de gato, tiritas, vendas, etc.

**Todos los contenedores de recogida selectiva dispondrán de una tapa de dimensiones limitadas para evitar residuos impropios.** En el caso de grandes generadores de materia orgánica o envases, como pueden ser restaurantes o supermercados que necesiten acceso a la tapa grande, podrán solicitar la llave poniéndose en contacto con las oficinas de Mancomunidad de Montejurra en el número de teléfono 948 55 27 11 o enviando un correo a [mancomunidad@montejurra.com](mailto:mancomunidad@montejurra.com). La cesión de la llave estará supeditada a la comprobación de que el establecimiento separa correctamente sus residuos. Recordamos que **es obligatorio separar correctamente los residuos y depositarlos en el contenedor correspondiente.**

Para facilitar el tránsito hacia este modelo estamos llevando a cabo la **Campaña Especial de reparto de bolsas** en la que repartiremos 3 rollos de bolsas a cada abonado.

**¡Para adquirir sus bolsas, indique el número de abonado!**

Le agradecemos su colaboración y le enviamos un cordial saludo.



Estella-Lizarra, 2024ko martxoa

**Abonatu hori:**

Zurekin harremanetan jarri gara Jurramendiko Mankomunitate guztian **bost edukiontzien** bilketa eredu finkatuko dela jakinarazteko.

Honatx aldaketaren berritasun nagusiak:

- Edukiontzi grisa jarriko da, GAINERAKOA izenekoa, beste edukiontzietan berariaz bereizi ez diren hondakinak uzteko.
- Edukiontzi horia, latak, brikak eta plastikozko ONTZIAK uzteko bakarrik erabiliko da.
- Irekiera mugatuko tapak ORGANIKOA, ONTZIAK eta PAPER-KARTOIA frakzioetan.

Guztiz garrantzitsua da, hondakinak gaika biltzeko edukiontzietan dagozkion hondakinak bakarrik uztea, hau da, gai organikoa, ontzi arinak, papera-kartoia eta beira. Era berean, hondakin bereziak garbi guneetan edota Traperosen bilketan utzi behar dira (tamaina handikoak, pilak, tresna elektrikoak, lanparak, tonerrak, etab.). **Berariaz bereizi ez den guztia GAINERAKOAREN edukiontzira eramane behar da, kolore grisekora.** Bereizketa ongi egin bada, edukiontzi grisean honakoa bakarrik utzi behar da: pixoihalak, konpresak, zeramika, erratz bidez jasotako hondarrak, zumitzak, sokak, katu-harea, tiritak, bendak, etab.

**Gaikako bilketarako edukiontzi guztiak neurri mugatuko tapa bat izanen dute hondakin desegokiak ez sartzeko.** Gai organiko edo ontzi sortaile handiek -hala nola tapa handirako sarbidea behar duten jatetxeek edo supermerkatuek- giltza eskatzen ahalko dute Jurramendiko Mankomunitateko bulegoekin harremanetan jarriz, dela 948 55 27 11ra deituz, dela [mancomunidad@montejurra.com](mailto:mancomunidad@montejurra.com) helbidera idatziz. Giltza utziko da, baldin eta establezimenduak bere hondakinak ongi bereizten dituela egiaztatzen bada. Gogoratuko dugu **derrigorrezkoa dela hondakinak ongi bereiztea eta dagokion edukiontzira eramatea.**

Eredu horretaranzko aldaketa errazte aldera, **poltsak banatzeko Kanpaina Berezia** egiten ari gara, abonatu bakoitzari 3 poltsa sorta banatzeko.

**Zure poltsak eskuratzeko, adierazi zure abonatu zenbakia!**

Eskerrik asko zure laguntzagatik eta agur bero bat.